

ESKOLA BIDEAK- iGE JM SANCHEZ MARCOS (KONTXA ESKOLA)

Red adscrita  Euskadi Aktiboa



Temas

Infancia, Juventud, Actividad física.

Descripción

DIAGNOSIA ETA BIDEEN LEHEN FROGA (1. FASEA):

- I. INFORMAZIO BILKETA OROKORRA (hasierako diagnostika): herriaren inguruko informazio bilketa kuantitatibo bat egitea izango da helburua: parte hartuko duten umeen kopurua, adina, eskolara joateko egiten duten bidea, norekin doazen, nola doazen...
 - Behaketa
 - Eskola, udalaren informazioa
 - Herriko beste proiektu egitasmoak identifikatu eta proiektuekin lotzea
- II. INFORMAZIO ETA KOORDINAZIO BILERAK (TALDE ERAGILEA eta bana banako bilerak): Guraso, udal eta irakasleekin egitasmoaren inguruko bilerak burutuko ditugu. Honez gain proiektuaren diseinua eta koordinazioa zehazteko eskolako IGEarekin eta eskolako arduradun eta zuzendaritzarekin behar beste batzar egingo dira, baita pilotajea nola egin erabakitzeko ere.
- III. MAPEOA ETA ARRISKU/BELDURRAK + BIDEEN BEHAKETAK + BIDEAK MARKATZEA (SAIOAK)
 - Haurrekin lehen saioak
 - MAPEOAK (LH3 – LH4)
 - Ibilbide zehatzak eraikitzea
 - Bideak sakon ezagutzeko, gustuko dutena, gustuko ez dutena...
 - Ibilbideetako arriskuak identifikatu eta horiek ekiditeko neurriak hartzea, auzoko eta herriko beste eragile batzuekin batera (Udala, Udaltzaingoa...)
 - Haurrekin bigarren saioak
 - BIDEAK BEHATU ETA OZTOPOAK IDENTIFIKATZEA. KANPO ESPAZIOAN (LH3 – LH4)
 - Haurrekin hirugarren saioak
 - BIDEAK MARKATZEA, KANPO EKIMENA (LH3 – LH4)

SENTSIBILIZAZIO SAIOA: Familiek saiora etortzeko aukerak izateko saioak ordutegi eta egun desberdinetan antolatuko dira (adibidez bat astean zehar eta bestea asteburuan)

- Harremana familiekin (beldurak, diskurtsoa...)
- Helduen bideetako zein kaleko jarrera lantzea
- Familien inplikazioan eragiteko mekanismoak sortzea, oinez etortzea sustatzea, kotxeak ekiditea...
- Esperientziak ezagutzeko tailerrak
- Haur eta familien arteko elkarriketa sustatzeko baliabideak sortzea (esku orriak, etxean bete beharreko mapak...)

IV. ARRISKUEN DIAGNOSTIKOA KONTRASTATU eta UDALEAN AURKEZTU: Talde eragileekin umeen ekarpenak kontrastatu, eta udalean diagnostikoa aurkeztu.

V. ESKOLAN ETA KALEAN KOMUNIKAZIO LANAK

- Eskolako hurrei ekimenaren aurkezpena
- Familiendako inkesta eta bideo grabaketa (Nola etortzen zinen zu eskolara?)
- Komunikabideak eta sare sozialak
- Kale ekimena

VI. ESKOLA BIDEAK MARTXAN frogatu moduan eskolako azken bi asteetan (pilotajea): Dinamizatzailerak egongo lirateke bidea ikuskatzen, eta ebaluatzen.

- Arazoak identifikatu, eta erantzun emateko
- Hurrekin lan pedagogikoa egiteko eskola bideen ohitura eta arduraz inguruan
- Familiekin lan pedagogikoa egiteko (haurrak bakarrik eta seguru joatearen garrantziaz)

Población

Población Infantil (0-11 años) - Cualquiera (LH 3-4)

Persona de contacto

ELVIRA FERNANDEZ BENGUA (677880099) (igekontxaeskola@gmail.com)

Fecha de última actualización de la actividad

12/04/2023

Situación actual de la actividad

Histórica

Gratuita

Sí

Localización

Calle GENERAL CONCHA 18 48010 BILBO 6. BARRUTIA Bilbao Bizkaia Euskadi España



Imagen de la Actividad

